

# Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA

2753

14/1994 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak, honako legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

**EKAINAREN 30EKO 14/1994 LEGEA, EKONOMIA, HERRIOGASUN ETA DIRUEGITAMUEN LEGEBILTZAR BATZORDEAK EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO EKONOMIA KONTROLARI ETA KONTABILITATEARI BURUZKOA.**

### Zioen adierazpena

#### 1.- Legearen nondik norakoa

Euskadiko Herri-Ogasuna gutxika-gutxika bere azken mamikuntzara iristeko, beharrezkoa da Euskadiko Ogasun orokorra osatzen duten gai guztiak zehazteko pausoak ematea, 1983.eko ekaineko Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauekiko Legearen egitura kontuan izanda, baina gai horren inguruan indarrean diren xedapenak biltzen dituen 1988.eko maiatzeko testu baterabilduaren arabera.

Euskal Autonomi Elkarteko ekonomiaren barne-kontrolari buruzko lege hau, beraz, hasteko, gorago aipatutako helburu horretara iristeko urrats berri bat da, baina horrek ez du berez eta bere aldetik duen balioa murriztu behar, ogasunaren inguruko lehen mailako legea baitugu. Izan ere, legearen helburu nagusia lehen aldiz, egitura kontuan hartuz eta osotasunean, Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioen ekonomiaren barne-kontrola arautzea da. Kontrol horrek, ekonomiaren kanpo-kontrolarekin batera, hau da, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten duenarekin batera, Autonomi Elkarteko ekonomia-ihardueraren kontrola ziurtatzen du.

Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauekiko Legearen VII. idazpuruan, hain neurtua baina era berean adierazkorra eta berria den horretan, Euskal Autonomi Elkartek bere ekonomia-iharduerari zer nolako kontrol-bideak ezarri behar dizkion finkatu eta, halaber, kontrol hori gauzatzeko gutxieneko pausoak ere zehaztu ziren, Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioaren ekonomia-iharduerarentzat berezia baitzen eta Euskadiko Ogasun orokorrari zegozkion gaietara ere eragiten baitziren. Gai horren inguruan, lege honek azken horiek arautzen ditu, eta horien artean bereziki kontabilitate-kontrola eta kontuhartze-kontrola.

Arau honetan aurkezten den ekonomiaren barne-kontrolerako ereduak alde batetik oso-osokoa izan nahi du, baina hasieran behintzat tirabira gehiegi sortuko ez duena; arauen gaineko aurre hartzeko kontrolak eta ekonomia-ihardueraren gainean gerora egingo

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA

2753

LEY 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euzkadi.

Se hace saber a todos los ciudadanos/as de Euzkadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

**LEY 14/1994, DE 30 DE JUNIO, DE CONTROL ECONÓMICO Y CONTABILIDAD DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.**

### Exposición de motivos

#### 1.- Planteamiento de la ley

La paulatina configuración final de la Hacienda Pública Vasca necesita ir dando pasos para la completa articulación de todas y cada una de las materias que configuran la Hacienda general del País Vasco siguiendo la estructura de la ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco de junio de 1983 en los términos del texto refundido de disposiciones vigentes sobre la materia de mayo de 1988.

La presente ley de control económico interno de la Comunidad Autónoma de Euzkadi se configura, pues, en primer término, como muestra de un paso más en ese empeño, aunque ello no debe minimizar su propia validez sustantiva ya que se trata de una ley hacendística de primera magnitud. En efecto, el objeto básico de la ley es regular, por primera vez y con carácter estructural y completo, el control económico interno en la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euzkadi. Este control, unido al control externo, que es el que se ejerce a través del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas-Herri Kontuen Euskal Epaitegia, aseguran la arquitectura controladora de la actividad económica en la Comunidad Autónoma.

En una regulación tan parca como sugerente y novedosa, el título VII de la ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco dedicó su contenido a establecer los medios de control de la Comunidad Autónoma de Euzkadi sobre su propia actividad económica y a fijar unas coordenadas mínimas para el ejercicio de los modos de control que se calificaban por ser específicos de la actividad económica de la Administración pública de la Comunidad Autónoma y, además, comunes a las materias propias de la Hacienda general del País Vasco. En este sentido, la presente ley regula estos últimos y, de entre ellos, fundamentalmente, el control contable y el control intervector.

El modelo de control económico interno que se presenta en la presente norma se concibe como un control que trata de ser integral y a la vez no excesivamente beligerante a priori para poner el acento en controles preventivos sobre las normas y controles

direnei emango die garrantzia. Kontrol horiek euskal herri-administrazioak eta administrazio-erakundeek ekonomiaren inguruan duten iharduteko modua aldatu ahal izango dute, beti ere egiturak eraginkorrak izan daitezten lortu nahian. Oso-osoko kontrola da, ekonomiako gertakari eta eragiketa guztiak baitira kontrolpean jartzen direnak, hau da, administrazioak ekonomiaren inguruan egindako iharduera guztiak daude kontrolpean. Horrekin batera, administrazioaren arau eta xedapenak direla eta, aurre hartzeko kontrola ere bada, arlo honetako arautan hartzen diren erabakiak ekonomia eta finantzen arloan bidezkoak direla zaintzen baitu, ekonomia eta finantzen arlo horretan administrazioaren egitekoa zehazki hezurramituko duten erabakiak hartu baino lehen.

Aipatutako ezaugarri horiekin oreka lortzeko eta sailek ekonomia kontuetan egunero egiten duten lanarekiko jarrera positiboa izateko, kontrol horrek gogoe-ta-eragile eta gehiegizko eskuhartzerik ez duena izan nahi du; eta hor ez dago kontraesanik.

Gogoetari eman nahi zaio lehenetsuna, gerora egindako kontrolek orokorrean edo gai zehatzen inguruan osotasunezko ikuspuntua ematen baitute, eta horrek kudeatzaileek hartu beharreko erabakietan eragina izango du. Horrela, crantzukizuna izango da nagusi herri-erakundeen kudeaketan, eta ez horrenbeste kontrolean, gaur egun hala gertatzen ez bada ere. Era berean, kontrol horrek ez du gehiegizko eskuhartzerik izango, eskubideak onartu edo gastuetara behartzeko erabakiak hartzen dituztenek ez baitute, orokorrean behintzat, "intromisio" delakorik jasango, eta hori izan da alde zurretik eta modu kritikoa egindako kontu-hartzeek ekarri izan dutena orain artean. Gai horren inguruan, ez da inolako gehiegikeria izango proposatzen den creduan arduraz egindako kudeaketak lehenetsuna duela esatea, kontrolatu gabeko ustezko iharduerak beste maila batean utzita. Izan ere, azken horiek konpontzea, araugabekeriaren bat izanez gero, zaila izan baitaiteke.

Baina lege honen bidez lortu nahi den ekonomiaren barne-kontrolaren ezaugarriak ez dira soilik oso-osokoa izatea, alde zurretikoa, gogoetan oinarritua izatea eta eskuhartzerik gabekoa gertatzea; horiekin batera, Euskal Autonomi Elkarteke herri-administrazioen barne-kontrolaren ezaugarri nagusietako bat mugikortasuna da. Atal batzuek ekonomiaren kontrolak duen mugikortasun horren berri ematen dute, kontrolak kide anitzeko organoetan parte hartzeko aukera baitaika, hitzartutako kontrolak zehaztu eta frogatu baititu eta, azken finean, kontrol-organoen esku uzten baitu urtero alde zurretiko hautatutako kontrolak egitea, erabakiko diren aurrekontu-programen arabera.

Bukatzeko, esan behar da lege hau ere Autonomi Elkarteke administrazio-egiturak berritzeko ahaleginaren barruan sartzen dela, eta helburu hori gogoan izanda, ihardunbideak gero eta arrazoizkoagoak izateko balio izan beharko du. Horrela, burokratizazioa gero eta txikiagoa izango da eta ekonomiaren inguruko ekintza publikoa kudeatu eta kontrolatu behar duten organoek azkartasun handiagoarekin ihardungo dute.

posteriores sobre la actividad económica que puedan modificar los modos de actuar económicos de la Administración pública vasca y las propias organizaciones administrativas en busca de la eficacia de las estructuras. Es un control que se concibe integral, porque son todos los hechos y operaciones económicas en su conjunto, esto es, toda la actividad administrativa de carácter económico, la que está sujeta a control y es a la vez un control preventivo sobre normas y disposiciones administrativas que ha de velar por la razonabilidad económica y financiera de las decisiones normativas en este campo con anterioridad a que se adopten las que vertebren de manera concreta el quehacer administrativo en materia financiera y económica.

Como contrapunto a las características señaladas, y primando una actitud positiva ante la gestión económico-departamental diaria, es un control que se pretende más reflexivo y menos injerente, sin que ello sea un contrasentido.

Se prima la reflexión, dado que los controles posteriores ofrecen visiones de conjunto en general o en materias concretas que servirán para la toma de decisiones por los gestores y que harán que la responsabilidad en la gestión, y no tanto en el control, sea una de las notas dominantes del actuar público, cosa que no sucede hoy en día. Al propio tiempo, se considera un control menos injerente ya que la cadena decisional sobre tomas de postura consistentes en reconocer derechos y obligar gastos se va a ver, en general, bastante despojada de la mal llamada "intromisión" que históricamente ha supuesto el ejercicio de la función interventora de carácter previo o crítico. En este aspecto, ciertamente, no debe suponer ningún empacho decir que en el modelo propuesto tiene prioridad la gestión responsable frente a hipotéticas actuaciones no controladas cuya reposición, caso de ser irregulares, puede resultar dificultosa.

Pero no son el carácter integral, preventivo, reflexivo y no injerente los únicos rasgos del control económico interno que se pretenden en la presente ley. Junto a todos ellos hay que enumerar en lugar preferente el dinamismo en el control como nota a subrayar del control interno en la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En efecto, hay algunos artículos que dan idea del dinamismo del control económico al establecer fórmulas de participación del control en los órganos colegiados, al definir y experimentar controles concertados y, en definitiva, al dejar en manos de los órganos de control la posibilidad de ejercer cada año controles selectivos de carácter previo en función de los programas presupuestarios que se determinen.

Para terminar, debe decirse que la presente ley ha de inscribirse también en los esfuerzos por modernizar las estructuras administrativas de la Comunidad Autónoma, y bajo este punto de vista ha de servir para una progresiva racionalización de los procedimientos que proporcione menores tasas de burocratización y mayor agilidad en los órganos llamados a gestionar y controlar la cosa pública desde su vertiente económica.

## 2.- I. idazpuruko xedapen orokorrak

I. idazpuruko xedapenek, hau da, legearen I. ataletik 4.era artekoek, ekonomiaren barne-kontrola zehazten dute kanpo-kontrolaz duen aldea erakusteko, horretarako zein baliabide dauden eta helburu nagusia zein den arautzen dute, kontrol horren legezko araudia ezarri eta kontrolean nagusi diren hatsapen orokorrak aditzera ematen dituzte. Bukatzeko, kontrol hori ia oso-osoan zein organok eramango duen aurrera deskribatzen da laburki. Aipatzekoa da ekonomiaren barne-kontrolaren oinarritzko hatsapenak lehen aldiz zehaztu direla Autonomi Elkartearen, eta doktrinak gai horren inguruan orain arte ezarritakoarekin alderatuta aldaketa handirik ekarri ez badu ere, interesgarria da horiek aipatzea eta zehazki zer diren gogoan izatea. Arautzeko beste bide batzuen artean aukera bat egin da eta Autonomi Elkartearen ekonomia-kontrolak nondik nora jo behar duen argitzeko ahalegina ere bada. Era berean, Ekonomia Kontrolerako Bulegoa euskal administrazioaren ekonomiaren barne-kontrola bateratuko duen gunea izango da.

## 3.- Kontabilitate-kontrola eta kontabilitatea euskal administrazioan

Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauekiko Legeak, oso azaletik izan bazen ere, euskal administrazioaren kontabilitate-kontrola eta kontabilitatea herara ere deskribatu zituen -legearen testu baterabilduko 57. atala-, baina bai kontabilitate-kontrola bai kontabilitatea zehaztu gabe zeuden, Autonomi Elkartearen ikuspuntutik, legetan edo arauetan. Egoera horrelakoa izanik, eta nahiz eta gai honetan zaila izan, zaila izateaz gainera komeni ez, ezer berritzea, interesgarria zen kontabilitateko ereduak finkatzea. Izan ere, administrazioaren arteko informazio-harremana ezinbestekoa da eta erakunde pribatu nahiz publikoen artekoak, berriz, kontabilitatearen inguruko arau berdinak araututa egon behar du. Horrela, Autonomi Elkartearen urteko kontuetan, gehitutako kontuetan eta ekonomiari buruzko kontuetan jasotako kontabilitateko informazioa eta unean uneko deskripzioak bilduko lirateke kontabilitateko eredu horietan.

Legearen II. idazpuruan, hau da, 5. ataletik 14.era artekoetan, Autonomi Elkartearen administrazioan erabili beharreko kontabilitate-kontrola eta kontabilitatea deskribatzen dira. Orokorrean kontrola erakundeek berek egitearen aldeko hatsapena bultzatzen da, eta horren arabera, kontabilitatearen arloan deszentralizazioa bultzatuko da gutxika-gutxika. Dena den, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak zenbait erakundetan aurrera eramandako kudeaketa-modua benetan baliagarria da, emaitzak oso onak izan baitira, eta, gauzak horrela, ez dago bide hori berehala indarririk gabe uzteko asmorik.

Kontabilitatea, oinarrian, erabakiak hartu ahal izateko informazioa da eta lege-egitasmo honek are gehiago nabarmentzen du ezaugarri hori, informazioa eta jasotako oharra argiak direla erakutsiko duen berme bihurtzen baitu kontabilitate-kontrola. Ezaugarri hori orain arte kontuan hartu gabe zegoen Euskal Autonomi Elkartearen esparruko legetan. Ezaugarri horiek

## 2.- Las disposiciones generales del título I

Las disposiciones del título I, artículos 1 a 4 de la ley, definen el control económico interno para distinguirlo del externo, regulan los medios que lo integran y su objeto primordial, establecen la regulación legal de dicho control y manifiestan los principios generales que lo rigen, terminando por describir sucintamente el órgano que de manera prácticamente exclusiva es llamado a ejercerlo. Ha de decirse que los principios básicos de ejercicio del control económico interno son definidos por primera vez en la Comunidad Autónoma, y aunque no supongan grandes novedades respecto a lo que doctrinalmente se ha venido estableciendo sobre la materia, no por ello resulta menos interesante la enunciación de los mismos y su concreto alcance. Ello supone una opción frente a otras posibilidades de regulación y es un esfuerzo por clarificar los parámetros en los que se ha de mover el control económico en la Comunidad Autónoma. Al propio tiempo, la Oficina de Control Económico se convierte en la pieza aglutinadora del control económico interno en la Administración vasca.

## 3.- El control contable y la contabilidad en la Administración vasca

Aun cuando la ley de Principios Ordenadores de la Hacienda general del País Vasco ya describió de manera muy rudimentaria el control contable y la contabilidad en la Comunidad Autónoma -artículo 57 del texto refundido de la ley-, lo cierto es que tanto el control contable como la contabilidad no habían sido definidos ni en normas de rango de ley ni de una manera reglamentaria desde la perspectiva autonómica. Desde este punto de vista, y aunque se trate de una materia en la que es difícil, y hasta no deseable, innovar nada puesto que la interconexión informativa entre administraciones es esencial y la consolidación informativa entre distintos entes tanto públicos como privados ha de regirse por las mismas normas contables, resultaba interesante establecer modelos de contabilidad, destinatarios de las informaciones contables y descripciones sincréticas de lo que son cuentas anuales, cuentas agregadas y cuentas económicas de la Comunidad Autónoma.

En este título II de la ley, artículos 5 a 14, se describe el modelo de control contable y de contabilidad en la Administración de la Comunidad Autónoma, optándose en general por el principio de entidad en virtud del cual se tenderá a una progresiva descentralización contable, aun cuando la realidad actual de gestión en la Oficina de Control Económico para determinadas entidades es un modelo muy válido que ha dado muy buenos resultados y con el que tampoco se desea terminar de un modo inmediato.

Si la contabilidad es, de una manera fundamental, información para la toma de decisiones, el presente proyecto realza esta cualidad al convertir el control contable en garante de una transparencia informativa y de anotaciones que resultaba no abordada hasta el momento en normas de rango legal en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Junto a estas notas

aipatu ondoren, gogoan izateko moduko berrikuntza gutxi dago, eta kontabilitate-kontrola eta kontabilitatea, berez dituzten ezaugarriak direla eta, Estatuan eta gainontzeko autonomi elkarteetan bideratutako moduan gauzatuko dira hemen ere, kontsolidazioari nahiz aginpideak errespetatzeari dagokionean.

#### 4.- III. idazpurua. Kontuhartze-kontrola herri-administrazioan

Idazpuru hau sei atalburutan zatituta dago eta 15. ataletik 30.era artekoak biltzen ditu. Bertan, kontuhartze-kontrolak zein egitura duen, zerk osatzen duen eta nola ihardungo duen erakusten duten gutxieneko egiturak finkatu eta garatzen dira. Antolarauen Legeak, gorago behin baino gehiagotan aipatu denak, azken atalean aztertu zuen gai hori eta orain ematen den definizioak ez du alde handirik ordukoarekin aldeatuta.

Gauzak horrela, kontuhartze-kontrola kontrol hori egiten duen organoaren inguruan egituratuta dagoen kontrolen sistema da. Organo horrek kontrolpean dituen zerbitzu edo erakundeekiko autonomia osoa dauka, eta, gainera, Autonomi Elkarteak ekonomia-iharduera zehatz ezagutzeko balio izan dezaketen beste informazio batzuk ere biltzen ditu. Horrekin batera, ihardueran izan daitezkeen akatsei antz eman eta kudeaketarekin orekatuta egongo den legezketasuna bermatuko du kontuhartze-kontroloak.

Finantzen eta kudeaketaren kontuhartze-kontrola orain proposatzen den erudian indartuta geratu da, kontrol-modu hori baita kontrol publikoa bideratzen duten hatsapenetan aiarrikatzen den gaiaren unibertsaltasuna zintzoen betetzen duena. Kontrol horri bultzada eman zaio eta, gainera, kontabilitatea berraztertzeke nolabaiteko gaitasuna ere eskuratu du, kontrol-agiriak idatzi ahal izango baitira erantzukizunak eskatzeko. Gainontzekoan, maila guztietan egiten den kontu-ikuskatzaileen ohizko kontrola dugu hau eta euskal herri-administrazioak zenbaterainoko eraginkortasunez, emankortasunez eta ekonomiaz diharduen ezagutzeko balio izan behar du.

Kontuhartze-kontrol fiskala bere ezarpen-eremua mugatuta duen kontrola da eta bere arloan legezketasuna betetzen dela bermatu beharko du. Ez da ekonomia-eskubide eta -betebeharrak sor ditzaketen egintza, agiri eta espedienteen inguruko finantzen legezketasuna oso-osoan kontrolatzen duen kontrola, zati batean kontrolatzen duena baizik. Izan ere, ez dira dauden aukera guztiak kontrolatzen, ez eta kasu zehatz bakoitzean ezar daitezkeen legezketasun osoa ere. Horrek kudeaketa azkarragoa eta malguagoa izatea ekarriko du, ekonomikoki garrantzitsua dena bakarrik egongo baita kontrolpean. Hasiera batean behintzat, bere helburua nahikoa orekatua da; zati bat egiturari dagokio, legean jasotzen dena, eta bestea, berriz, unean uneko egoerari, urtero erabakiko dena. Txosten fiskalean jasotako akatsak direla eta, indargabetzeko ondorio mugatua ez da baliorik gabe uzten.

Administrazioarekiko ekonomia-arazoetan kontuhartzeko kontrola kontrol logikoa da diru-sarrereri dagokienez, eta gastuei dagokienez, berriz, zabala, erakundeen administrazio guztietan ere ondorioak izan

características pocas innovaciones merecen ser mencionadas, y el control contable y la contabilidad por su propia naturaleza se llevará de un modo muy similar tanto al del Estado como al del resto de las Comunidades Autónomas tanto a efectos de consolidación como de respeto competencial.

#### 4.- El título III. El control interventor en la Administración pública

Este título, subdividido a su vez en seis capítulos y que agrupa los artículos 15 a 30, viene a desarrollar y establecer los parámetros mínimos en los que ha de inscribirse la estructura, integración y funcionamiento del control interventor que la ley de Principios Ordenadores, a la que se ha hecho reiterada referencia, abordó en su artículo último y cuya definición no difiere, sustancialmente, de la que allí se contiene.

Así, el control interventor se configura como un sistema de controles estructurado en torno al órgano que lo realiza, el cual, con perfecta autonomía respecto de los servicios y entes controlados, aglutina, además, otras informaciones susceptibles de dar por resultado un conocimiento exhaustivo de la actividad económica en la Comunidad Autónoma, detectar anomalías de funcionamiento y garantizar la legalidad de un modo equilibrado con el quehacer gestor.

El control interventor de carácter financiero y de gestión sale fortalecido en el modelo propuesto al ser aquel que más sinceramente cumple con la universalidad del objeto que se predica en los principios rectores del control público. Se potencia este control e incluso se le dota de cierto carácter de reposición contable al establecer la posibilidad de dictar actas de control con fuerza para exigir responsabilidades. Por lo demás, es un control auditor típico a todos los niveles que debe servir para medir la eficacia, eficiencia y economía de la Administración pública vasca.

El control interventor de carácter fiscal se configura como un control limitado en su ámbito de aplicación y garante de la legalidad en lo que es su objeto. No es un control de legalidad financiera total sobre actos, documentos y expedientes susceptibles de producir derechos y obligaciones económicas sino parcial, ya que ni se controla todo el universo posible ni se controlan todos los parámetros de legalidad aplicables a los casos concretos. Ello dinamizará y flexibilizará la gestión, ya que sólo lo considerado económicamente trascendente es objeto de control. En principio su objeto es bastante equilibrado y se compone de una parte estructural que aparece en la ley y de una parte coyuntural según pueda disponerse anualmente. No se elimina tampoco el efecto suspensivo limitado de algunos defectos advertidos en el informe fiscal.

El control interventor de carácter económico-administrativo se dibuja como un control lógico en la vía de los ingresos y amplio en el de los gastos, con implicaciones incluso en la Administración institucional al

baititzake. Dena den, gaur egun administrazioarekiko ekonomia-erreklamazioen araudian eta autonomi mailako araudian indarrean dagoen kontrolarekiko etenik ez du eragin.

Ekonomia-araucn kontuhartze-kontrolak ez du, ezaugarrici dagokienez behintzat, aldaketarik izan, lege bidez araututa geratu eta, beraz, maila jaso izanarena ez bada. Gaur arte maiatzaren 2ko 119/1990 Dekretuan zegoen jasota. Dekretu hori urte horretako Aurrekontu Orokorren Legean egindako egokitzapen baten bidez onartu zen, eta kontrol-sistemetan ekarri zuen berrikuntza zela eta, kontrol-modu hori bere aldetik araututa geratu zen. Lege-egitasmo honen bidez erabat berretsi da kontrol-modu hori, kontuan izanik gainera oso emaitza onak ekarri dituela horretaz baliatzeak. Ekonomia eta antolakuntzaren kontrola kontrol honen barruan biltzen da eta lehenago aipatutako maiatzaren 17ko 1/1988 Legegintza Dekretuko 60. atalean horri buruz eginda zegoen araudia indarrrik gabe geratuko da.

## I. IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. atala.- Helburua eta zehaztapena

- 1.- Lege honen helburua Euskal Autonomi Elkarte-ko herri-administrazioaren baitako ekonomia-kontrolaren eta kontabilitatearen jaurbideta arautzea da.
- 2.- Ekonomia-kontrola Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioaren ekonomia-ihardueraren gaineko kontrola da, Euskadiko Ogasun orokorraren berezko aginpide diren gaitan egindako kontrola eta, horien ondorio izanik edo horiek gauzatu, Ogasun orokor hori osatzen duten eskubide eta betebeharrekin zuzeneko edo zeharkako harremana duten banakako eragiketen gainean egindako kontrola.
- 3.- Ekonomia-kontrola barne- edo kanpo-kontrola izan daiteke. Ekonomiazko barne-kontrolak kontabilitate-kontrola, kontuhartze-kontrola eta administrazioarekiko ekonomiazko erreklamazioen bidez egindako kontrola dira. Kanpo-kontrola Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindakoa da.
- 4.- Era berean, lege hau erabaki ghegarrian aipatzen diren erakundeei, beren aurrekontuak Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorren barruan sartzen diren erakundeei eta herri-diru edo diru-laguntzak jaso edo erabil ditzaten pertsona eta lege-pertsona publiko zein pribatuei ere ezarriko zaie, adierazten den moduan.

### 2. atala.- Arauak

- 1.- Kontabilitatea eta kontabilitate- eta kontuhartze-kontrola lege honetan jasotakoaren arabera arautu eta gauzatu dira eta lege honen aldaketen eta legea garatzen duten arau edo araudien arabera.
- 2.- Administrazioarekiko ekonomia-arazoetan kon-

completo, pero que no supone ruptura con el ahora existente en la normativa de las reclamaciones económico-administrativas y su normativa autonómica.

El control interventor de carácter económico-normativo no supone variación cualitativa respecto a su regulación actual si no es por el hecho de que se eleva de rango su normación, hoy contenida en el Decreto 119/1990, de 2 de mayo, el cual fue aprobado merced a una habilitación en la ley de presupuestos generales para ese año y que por su innovación en los sistemas comparados de control ya tuvo su propia regulación, la cual ahora queda plenamente confirmada habida cuenta, además, de los excelentes resultados que su ejercicio ha brindado. El control económico-organizativo se incluye como modalidad de este control y pierde su normación propia contenida en el artículo 60 del Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de mayo, ya citado.

## TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1.- Objeto y definición

- 1.- Es objeto de la presente ley la regulación del régimen de control económico y de la contabilidad en el ámbito de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- 2.- Se entiende por control económico aquel que se ejerce sobre la actividad económica de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sobre las materias propias de la Hacienda general del País Vasco y sobre las operaciones individuales que derivando de aquellas o manifestándolas tienen relación directa o indirecta con el conjunto de derechos y obligaciones que la conforman.
- 3.- El control económico puede ser de carácter interno o de carácter externo. Son controles económicos internos el control contable, el control interventor y el control que se ejerce a través de las reclamaciones económico-administrativas. Es control externo el control del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas-Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- 4.- La presente ley es asimismo aplicable a las entidades citadas en la disposición adicional, a aquellas cuyos presupuestos formen parte de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma y a las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas que reciban o utilicen subvenciones o fondos públicos, en los términos establecidos.

### Artículo 2.- Regulación

- 1.- La contabilidad y los controles contable e interventor se regulan y ejercen de conformidad a la presente ley, sus modificaciones y sus normas reglamentarias o de desarrollo.
- 2.- Con las especialidades que se contienen en la

tuhartzeko kontrolari buruz lege honetan aipatzen diren berezitasunekin, administrazioarekiko ekonomiazko erreklamazioen bidez egiten den kontrolak bere arau bereziak ditu eta arau horien arabera burutzen da.

- 3.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrola bere arau bereziek arautzen dute eta arau horien arabera burutzen da.

### 3. atala.- Ekonomiazko barne-kontrolaren hatsapenak

Ekonomiazko barne-kontrola jarraian aipatzen diren oinarriko hatsapenen arabera gauzatuko da:

- a) Helburuaren unibertsaltasunaren hatsapena. Hatsapen horren arabera, Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioaren ekonomia-iharduera oro izan daiteke ekonomia-kontrolpean.
- b) Kontrolgilearen bakartasunaren eta egituraketa-aren hatsapena. Hatsapen horren arabera, eta administrazioarekiko ekonomia-arazoetan kontuhartzea dela eta lege honek ezarritako salbuespena alde batera utzita, ekonomiazko barne-kontrola gauzatuko duen organoa bakarria izango da Autonomi Elkarteko herri-administrazio osorako eta Ekonomi eta Ogasun Sailaren barruan kokatuko da egituraz.
- c) Iharduerarako askatasunaren hatsapena. Hatsapen horren arabera, ekonomiazko barne-kontrola gauzatuko duen organoak erabateko autonomia izango du kontrolatuko dituen organo eta erakundeekiko.
- d) Bere ihardunera mugatutako erantzukizunaren hatsapena. Hatsapen horren arabera, ekonomiazko barne-kontrola egiten duena dolua, errua edo axolagabekeria larria dela eta, bere erantzukizuna salbuetsi ez dezanetan soilik gertatuko da erantzule, Euskadiko Ogasun orokorrari kalte nahiz galera eragiten dioten ekintza edo xedapenen ezegokitasuna edo legez kontrakotasuna dela eta. Dena den, ekintza edo xedapen horiek sortu, jaulki eta berrikusteko lanetan aldeaz aurretik parte hartu dutenetakoa izan behar du erantzukizunak berari eskatzeko.
- e) Organoen arteko elkarlanaren hatsapena. Hatsapen horren arabera, aitortuta dituen aginpideen barruan, ekonomiazko barne-kontrola egiten duen organoak kontrolpean dituen gainontzeko organoci lankidetzeta eta laguntza eginkorra eman-got die dagozkien egitekoak eta aginpideak eraginkortasunez bete ditzaten.

### 4. atala.- Ekonomia Kontrolerako Bulegoa

- 1.- Ekonomia Kontrolerako Bulegoari dagozkio, lege honetan ezarritako moduan, bertan arautzen den kontabilitatea eta ekonomiazko barne-kontrola egitea.

Ekonomia Kontrolerako Bulegoa Ekonomi eta Ogasun Sailaren egituraren baitan egongo den organoa izango da. Organo horren ardura duena

presente ley a propósito de la regulación del control interventor de carácter económico-administrativo, el control que se ejerce a través de las reclamaciones económico-administrativas se ejerce de conformidad a su normativa específica.

- 3.- El control del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas-Herri Kontuen Euskal Epaitegia se regula y ejerce de conformidad a su normativa específica.

### Artículo 3.- Principios del control económico interno

El control económico interno se desarrollará bajo los principios básicos siguientes:

- a) Principio de universalidad en el objeto, según el cual toda la actividad económica realizada por la Administración pública de la Comunidad Autónoma es susceptible de control económico.
- b) Principio de unicidad y jerarquía orgánica en el sujeto controlador, según el cual, y salvo con la excepción que se establece en la presente ley respecto al control interventor económico-administrativo, el órgano que ejerce el control económico interno es único para toda la Administración pública de la Comunidad Autónoma y está jerárquicamente ubicado en el Departamento de Economía y Hacienda.
- c) Principio de independencia funcional, según el cual el órgano ejerciente del control económico interno lo hace con absoluta autonomía respecto a los órganos y entes a los que controla.
- d) Principio de responsabilidad limitada a su actuación, según el cual los sujetos ejercientes de control económico interno sólo son responsables en los casos en que con dolo, culpa o negligencia grave no hayan salvado su responsabilidad acerca de la improcedencia o ilegalidad de aquellos actos o disposiciones que causen daños y perjuicios a la Hacienda general del País Vasco y en cuyo proceso de formación, emisión y supervisión hayan participado previamente.
- e) Principio de colaboración orgánica, según el cual y dentro de las competencias reconocidas, el órgano ejerciente del control económico interno prestará colaboración y asistencia activa a los órganos cuya actividad controle para el eficaz ejercicio de las funciones y competencias de éstos.

### Artículo 4.- La Oficina de Control Económico

- 1.- En los términos establecidos en la presente ley, las funciones de contabilidad y control económico interno que se regulan en la misma se realizarán por la Oficina de Control Económico.

La Oficina de Control Económico es un órgano integrado en la estructura del Departamento de Economía y Hacienda. A su frente habrá un Di-

zuzendaria izango da, Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen ondorioetarako goi-karguduna izango dela.

- 2.- Ekonomia Kontrolerako Bulegoak bere baitan dituen langileen bidez egingo dituen kontuhartze-kontrolerako lanak kontuhartzaileen bidez burutuko dira. Kontuhartzaileak indarrean dauden xedapenetan ezartzen den kontabilitate-erantzukizunaren menpe egongo dira, xedapen horietan adierazi daitezkeen modu eta neurrietan. Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren lan hori zuzenean edo ordezkotza duten organoen bidez eraman ahal izango da aurrera, eta finantzen eta kudeaketaren ekonomia-kontrolari buruzkoa denean, horretarako kontratatuta, administrazioaz kanpoko baliabideak ere erabili ahal izango dira.

Ekonomia Kontrolerako Bulegoak lege honetan aipatzen den kontuhartze-kontrola gauzatzeko erabateko autonomia eta askatasuna izango du kudeaketa kontrolatzen dien gainontzeko organo eta erakundeekiko. Hori dela eta, ez du jarraipiderik jasoko inongo administrazio-organoren aldetik.

Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren egitura eta antolaketa eta bere egitekoak betetzeko moduak araudi bidez ezarriko dira.

- 3.- Ekonomiazko barne-kontrola egin ahal izateko, beharrezko dituen espediente, datu, txosten, aholkularitza tekniko, aurrekari, agiri edo argibideak eskatu ahal izango dizkie kasuan kasuko erakunde guztiei. Etsakera horri ezin izango zaio ezezkorik erantzun ezinbesteko arrazoiren bategatik edo iharduera isilpekoa delako ez bada, indarrean dagoen legedian jasotako moduan.
- 4.- Euskal Autonomi Elkartean kontabilitate-kontrolaren, kontuhartze-kontrolaren eta kontabilitatearen inguruko araudigintza-ahalmena bultzatzeko aginpidea duen organoa Ekonomia Kontrolerako Bulegoa da. Era berean, aipatutako gai horiei buruzko edozein ekimeni buruz Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren iritzia entzun beharko da.

## II. IDAZPURUA

### KONTABILITATEA ETA KONTABILITATE KONTROLA

#### I. atalburua Kontabilitatea

#### 5. atala.- Zehaztapena eta helburua

- 1.- Kontabilitatea Euskal Autonomi Elkarteko herri-ahorraren aurrekontu, finantza, ondare eta diruzaintzari buruzko informazioa ematen duen tresna edo sistema da. Bere helburua menpeko erakunde bakoitzaren ondarearen, finantza-egoe-raren, aurrekontuen eta emaitzen berri fidagarria

rektor de la Oficina, que tendrá la consideración de alto cargo a los efectos de la Ley 7/1981, de Gobierno.

- 2.- Las funciones de control interventor que realice la Oficina de Control Económico por medio del personal adscrito a la misma se llevarán a cabo por medio de interventores, que estarán sujetos a la responsabilidad contable que establezcan las disposiciones en vigor en los términos que de ellas se deriven. El ejercicio de la actividad de la Oficina de Control Económico podrá llevarse a cabo directamente por la Oficina de Control Económico o mediante órganos delegados. Asimismo, podrá servirse de medios ajenos a la propia Administración contratados al efecto cuando se refiera al ejercicio del control económico-financiero y de gestión.

La Oficina de Control Económico ejercerá las funciones de control interventor previstas en la presente ley con plena autonomía e independencia respecto a los órganos y entidades que gestionen el control, sin que, por tanto, reciba instrucciones de órgano administrativo alguno.

Reglamentariamente se establecerán la estructura y organización de la Oficina de Control Económico, así como las modalidades de ejercicio de sus funciones.

- 3.- En el ejercicio de sus funciones de control económico interno, la Oficina de Control Económico podrá recabar los expedientes, datos, informes, asesoramientos técnicos, antecedentes, documentos o aclaraciones necesarios para el desempeño de su función a cuantas instancias fuere pertinente. El correspondiente requerimiento no podrá ser denegado salvo causas de fuerza mayor o secreto de las actuaciones, en los términos previstos en la legislación vigente.
- 4.- La Oficina de Control Económico es el órgano competente para instar el ejercicio de la potestad reglamentaria en materia de control contable, control interventor y contabilidad en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Asimismo, deberá ser oída en cualquier iniciativa relativa a las materias citadas.

## TÍTULO II

### LA CONTABILIDAD Y EL CONTROL CONTABLE

#### Capítulo I La contabilidad

#### Artículo 5.- Definición y objeto

- 1.- La contabilidad es el instrumento o sistema de información presupuestaria, financiera, patrimonial y de tesorería del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y tendrá por objeto mostrar, a través de documentos, cuentas, libros y estados, la imagen fiel del patrimonio, de

ematea da, agiri, kontu, kontu-liburu eta egoera-orrien bidez.

- 2.- Euskal Autonomi Elkarteko herri-alorrak gauzatuak ekintza eta eragiketa guztiak, ekonomiazko edukia badute, kasuan kasuko erakundearen kontabilitatean jaso beharko dira eta erabakitako moduan agertarazi.

#### 6. atala.- Kontabilitate-sistemak eta menpekoak

- 1.- Idazpuru honi dagokionez, honakook osatuko dute Euskal Autonomi Elkarteko herri-alorra: Legebiltzarrak, administrazio orokorrak, erakunde-administrazioak eta beren aurrekontuak Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorren barruan sartuta dituzten gainontzeko erakundeak.
- 2.- Herri-kontabilitatearen sistemaren menpe Autonomi Elkarteko administrazio orokorra eta erakunde autonomiadunak egongo dira. Euskal Autonomi Elkarteko Herri Kontabilitatearen Planean, plana garatzen duten arauetan eta ezargarri diren gainontzekoetan jasotako kontabilitateko hatsapen eta arauak beteko dituzte erakunde horiek.
